

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2019**

---

Joan den urriaren 7an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazio txostena, 2019ko ekitaldiari dagokiona.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du inongo salbuespenik azpimarratu gabe.

2018an egin zuen moduan, finantza egoerak 2019an ere bilakaera positiboa izan du. **Aurrezki gordina % 1 hazi da, sarrera arruntek gora egin dutelako, foru aldundien ekarpenek batik bat. Gora egin dute gastu arruntek (langileen gastuak, osasun-arretakoak, hezkuntza-itunetakoak, erakunde-administrazioari eta EHUri egindako transferentziak) eta inbertsioek (Osakidetza eta Alokabide).** Ekitaldiko emaitza arrunta nahikoa izan da inbertsio garbia zorpetu beharrik izan gabe finantzatzeko, izugarri egin baitu behera 2018arekin alderatuta.

Txostenak adierazi du EAEn Administrazio Orokorrak **bete dituela** 2019an **aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak**. Gastuaren aruari dagokionez, 2018ko ekitaldiaren aldean zenbagarria den gastua % 4,2 hazi da, ezarritakoaz gaindi, % 2,7an finkatua baitzegoen.

Txostenak aurreko ekitaldietan bezala lurralde historikoaren arabera gastu eta sarrerei buruzko informazioa jasotzen du, urteko kontuetan ez baita informazio hori ematen. Lurraldearen arabera sailkagarri den 2019an guztira aitortutako gastutik (nagusiki finantza gastuak eta zor publikoa salbuetsita), % 28 Arabari dagokio; % 47 Bizkaiari; eta % 25 Gipuzkoari. Diru-sarreretan (zor publikoari dagozkionak eta Europar Batasunetik eta Estatuko Administrazio Orokoretik jasotako transferentziak salbuetsita), berriz, % 16 Arabari dagokio, % 51 Bizkaiari eta % 33 Gipuzkoari. Ehuneko hauek bat datoz ekitaldian jasotako zerga sarreretatik Foru Aldundi bakoitzari dagokion ekarpenen ehunekoarekin.

Txostenak ondorioztatu du EA Eren Administrazio Orokorrek zuzentasunez bete duela ekitaldian ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen lege araudia, nahiz unean uneko salbuespenak azaleratu diren administrazioko kontratazioan (bi espediente presako prozedura baliatuta izapidetzea, prozedura horren erabilera behar bezala justifikatu gabe). Gainera, Jaurlaritzaren Kontseiluak 50,9 milioi euroren gastuak baliokidetu ditu, Ekonomia Kontrolerako Bulegoak aurkako txostena jaulkia zuela, batik bat zerbitzuak dagokion kontratu espedientea bideratu gabe egiteagatik).